## *Laburrak*

### SAINDUA GAZTELEKUA: BI URTEKO ATZERAPENA




Saindua gaztelekua maiatzaren 15ean ireki da, baina EAJ-PNVk salatu du bi urteko atzerapenarekin eta kudeaketa txarrarekin egin dela. Obrak 2024an amaitzekoak ziren eta, epeak luzatu badira ere, Abotsanitzen gobernuak ez du autokritikarik egin, ezta isiltasun eta gardentasun falta horren azalpenik eman ere. Zerbitzua berreskuratu bada ere, gauzak berandu eta gaizki egin dira.



### GUADALUPE BIZIBERRITZEKO AURRERAPAUSUAK

EAJ-PNVk Guadalupeko eremua zaindu eta hobetzeko hiru proposamen zehatz egin ditu, eguraldi onarekin bertaratzen den jende kopuruari erantzuteko. Jeltzaleek dauden banku eta mahaiak berritzea, ostalaritzako behin-behineko zerbitzu bat martxan jartzea eta santutegiko freskoak zaharberritzea eskatu dute, espazio honetaz gehiago eta hobeto gozatu ahal izateko.

### CAMPO DE FÚTBOL HONDARTZA: NUEVO CÉSPED

EAJ-PNV destaca que el campo de Hondartza puede tener nuevo césped artificial en 2027 si el Ayuntamiento actúa con rapidez. El acuerdo en Madrid y la transferencia de la gestión del litoral al Gobierno Vasco han desbloqueado el proyecto. Los jeltzales piden aprobar la modificación de crédito para actualizar el plan de 2019 ahora que el Gobierno Vasco ha autorizado la actuación.



## *Egin beharreko hobekuntzak*

### GIPUZKOA PLAZA INGURUA BERRITU BEHAR DA

EAJ-PNVk Hondarribirako estrategikoak diren proiektuak aurten hastea proposatu du, 2026ko kreditu-gehikuntzan txertatuz. Harategi, Satarka eta Gipuzkoa plaza inguruak berritzea eskatu dute hiri-espazioa eta irisgarritasuna hobetzeko. Lanak datorren urtean egin ahal izateko, idazketa orain hasi behar dela gogorarazi dute, udalari aurreikuspenez jokatzea eta inbertsioak etengabe egitea eskatuz.

### UN ESPACIO PÚBLICO Y NEUTRO

El PNV ha registrado una moción para garantizar la limpieza y neutralidad de las calles y mobiliario urbano. Los jeltzales advierten de la proliferación de pintadas y carteles que dañan la imagen y vulneran la convivencia imponiendo mensajes políticos. El PNV denuncia que esta situación no se produce por falta de normativa, sino por falta de voluntad política para hacer cumplir la ordenanza.

### ERAKUSKETA GELA IRISGARRI BAT DENONTZAT

EAJ-PNVk udal erakusketa gelak irisgarritasun unibertsala ez duela bermatzen ohartarazi du. Eskailera artean dagoenez, mugikortasun urriko pertsonei sarrera zailtzen die. Alderdiak kokapena berriz aztertzea eskatu du, herrian dauden beste aukera irisgarri batzuk kontuan hartuta, eta Udalari exijitu dio herritar guztientzat egokia, irekia eta segurua izango den gune baten alde lan egin dezala.

## *Ba al zenekien? • ¿Sabías que...?*

Santiago kalea, San Nikolas zubia, Arrantzale Auzoa edo Saindua Gaztelekua bezalako proiektuak aurreko EAJ-PNVren gobernuek planifikatu eta martxan utzi zituztela?

Hiri baten etorkizuna ez baita egunekoa kudeatzea bakarrik; hurrengo urteak prestatzea ere bada. Hor dago gobernu on baten benetako balioa.

*Zure iradokizunak* **bidali eta gurekin** *harremanetan* **jartzeko**

hondarribiaeajpnv

EAJ-PNV Hondarribia

hondarribia.eajpnv@gmail.com

https://www.gipuzko.eus/es/hondarribia/

eaj pnv **zurekin**

# 02 | *2026 · Uztaila* | HONDARRIBIA




EAJ-PNVk Hondarribiak dituen arazoak desblokeatzeko borondatea eta baliabideak dauzka.

EAJ-PNV tiene la voluntad y los medios para desbloquear los problemas que tiene Hondarribia.

## *Mugikortasun hobea eta segurua*

# HONDARRIBIA ERALDATZEN



EAJ-PNVren ekimenari eta Aldundiaren lanari esker, eskualdeko mugikortasuna hobetzeko proiektuak fase aurreratuan daude. Maria Serrano Hondarribiko bozeramaileak azpimarratu du Amuteko jarduketa eta Amutaldeko saihesbide berria urte honetan bertan lizitatuko direla. Plangintza integral honek trafikoa murriztuko du Mendelu eta Amute auzoetan, bide-segurtasuna eta bizi-kalitatea hobetuz. Gainera, oinezkoentzako eta bizikletentzako ardatz berri batek Hondarribia eta Irun modu jasangarrian lotuko ditu. Jeltzaleen arabera, egitasmoak eskualdeko herritarren historiko bati erantzuten dio.

Gracias a la iniciativa de EAJ-PNV y al trabajo de la Diputación, los proyectos de mejora de la movilidad en la comarca se encuentran en una fase avanzada. La portavoz de Hondarribia, María Serrano, destacó que la actuación de Amute y la nueva variante de Amutalde se licitarán este mismo año. Esta planificación integral reducirá el tráfico en los barrios de Mendelu y Amute, mejorando la seguridad vial y la calidad de vida. Además, un nuevo eje peatonal y ciclista unirá Hondarribia e Irun de forma sostenible. Según los jeltzales, el proyecto responde a un histórico de ciudadanos de la comarca.

## *Mugikortasuna hobetzeko ekimena*

# EAJ-PNVK JAVIER UGARTEN LURPEKO APARKALEKUA EGITEKO URRATSAK ESKATU DITU

EAJ-PNVk Javier Ugarteko lurpeko aparkalekua errealitate bihurtzeko prozesua lehenbailehen abiatzea proposatu du Hondarribian. Jeltzaleen arabera, azpiegitura estrategiko honek udalerriko aparkaleku gabezia zein mugikortasuna hobetuko ditu, herritarrei, bisitariei eta tokiko ekonomia jarduerari zerbitzua emanez Alde Zaharrera eta Portu Auzora modu errazean sartzeko. Arazoa udan larriagotzen denez, proiektu bideragarri honi ekiteko baldintza teknikoak baino gehiago borondate politikoa behar dela adierazi eta epe luzerako irtenbideak eskatzen dituzte.

EAJ-PNV propone en Hondarribia que se inicie cuanto antes el proceso para que el parking subterráneo de Javier Ugarte sea una realidad. Según los jeltzales, esta infraestructura estratégica mejorará tanto la falta de aparcamiento en el municipio como la movilidad, dando servicio a la ciudadanía, visitantes y actividad económica local para acceder de forma sencilla al casco histórico y a Portu Auzoa. Como el problema se agrava en verano, más que las condiciones técnicas para acometer este proyecto viable, hacen falta voluntad política y soluciones a largo plazo.



## *Titular handiak, baina ekimenik ez*

# ABOTSANITZEN 3 URTEAK ETA BETE GABEKO PROMESAK

Abotsanitz Hondarribiko gobernura iritsi zela hiru urte betetzen direnean, EAJ-PNVk balantzea egin eta herritarrei egindako promesa nagusiak bete gabe jarraitzen dutela salatu du. Jeltzaleen arabera, titular handiak eta zergak igo arren, gobernuak ez du etxebizitza publikoko sustapenik abiatu, bidegorri metrorik eraiki edota aparkaleku plaza berririk sortu, eta kudeatutako proiektu nagusiak aurreko exekutiboek utzitakoak dira. Egoera honen aurrean, EAJ-PNVk etorkizuneko proiektuak eta anbizioa berreskuratzea defendatzen du.



Se cumplen tres años de la llegada de Abotsanitz al gobierno de Hondarribia. EAJ-PNV ha hecho un balance y denuncia que las principales promesas hechas a la ciudadanía siguen sin cumplirse. Según los jeltzales, pese a grandes titulares y subidas de impuestos, el gobierno no ha puesto en marcha promociones de vivienda pública, la construcción de un metro bidegorri o la creación de nuevas plazas de aparcamiento, y los principales proyectos gestionados son los cedidos por el anterior ejecutivo. Ante esta situación, el PNV defiende recuperar los proyectos de futuro y la ambición.

Mugikortasun hobea eta segurua

Amute eta Amutaldeko lizitazioa laster

Mugikortasun ardatz berri bat

Lurrazpiko aparkalekua

Mugikortasun hobea

Tokiko ekonomiari bultzada

Paralisia eta blokeoa

Titular asko, kudeaketa gutxi

Proiektu nagusiak aurreko exekutiboak utziak